

Azaldu GDI indizea zer den

Berdintasun ezagatik giza garapen maila egokian izandako galera adierazten du. Hori neurtzeko, hiru alderdi hauek hartzen dira kontuan:

- Emakumeentzako osasun-arreta haurdunaldian eta ama izan ondoren.
 - Emakumeek gizartean duten ahalduntzea.
 - Lan-merkatuan gizonen eta emakumeen artean dagoen berdintasuna.
- Indizearen balioa 0tik 1era bitartekoa da: 0 denean, gizonak eta emakumeak berdinak dira erreferentzia-arloetan; 1 denean, berriz, sekulako aldea dago gizonen eta emakumeen artean.

Herrialdeak, beren GDIaren arabera

Aztertu herrialdeen zerrenda hau eta bilatu emakumeek herrialde horietan duten egoerari buruzko informazioa.

Herrialdeen sailkapena, GDIaren arabera	GDI
1 Suitza	0,04
3 Herbehereak	0,044
9 Alemania	0,066
12 Belgika	0,073
15 Espainia	0,081
19 Frantzia	0,102
23 Grezia	0,119
30 Polonia	0,137
37 Txina	0,164
43 Ameriketako Estatu Batuak	0,203
50 Saudi Arabia	0,257
52 Errusia	0,271
69 Turkia	0,328
77 Argentina	0,362
94 Aljeria	0,429
135 Egipto	0,565
158 Niger	0,695
159 Yemen	0,767

Espainia hartuko dugu erreferentzia gisa, bertako egoera ezagutzen dugulako ondoren:

- Zuen ustez, nola islatzen dute GDIaren datuek emakumeek munduan bizi duten egoera?
- Zuen ustez, zifra ofizialek adierazten duten bezain ona al da emakumeen egoera?
- Indize horretan lehen postuetan dauden herrialde batzuen egoera kontuan izanda, zer esanahi izan dezake?
- Ondoriorik atera al dezakegu herrialdeen arteko konparaziotik? Zein ondorio?
- Amen hilkortasunari eragiten dioten faktoreetatik zein egon daitezke erlazionatuta? (otsaileko jarduera)
- Zer ondoriozta dezakegu zifra horiek giza garapenaren indizearen (GGI) datuekin konparatzen baditugu? (ikus azalpena azaroko jardueran edo egutegian.)



Entzuten?

Genero Desberdintasunaren Indizeak (GDI) adierazten duenetik abiatuta, hausnarketa bultzatu nahi dugu, bai emakumeen egoerari buruz eta bai oraindik ere erabateko berdintasunean bizitzeko dauzkaten zailtasunei buruz.

Hori oso ondo ikusten da, besteak beste, mezu matxistetan; abesti batzuetan, adibidez. Gero ikusiko dugu hori, hurrengo jardueran.

Gaur egun gure garaia musiken letrek islatzen duen bezalaxe, garai batean esaera zaharrek islatzen zuten orduko egoera. Baina gaur egungo abesti batzuen letra aztertzen badugu, ikusiko dugu aspaldiko ideia sexista batzuk bizi-bizirik daudela gaur egun ere.

Musikak ahalmen izugarria du mezuak zabaltzeko; beraz, ondo entzun behar dugu abestien letrek zer esaten duten; letra hori aztertzea komeni da, zer esaten duen arretaz begiratuz.

Esaera zaharrak talde txikitan azertu

Jarri ikasleak launaka eta eman talde bakoitzari esaera zaharren koadroaren fotokopia bat. Irakur ditzatela, hausnarketa egin dezatela eta bertan datozen galderei erantzun diezaietela. Talde bakoitzean taldekide bat izendatuko dute bozeramaile.

Bukatu dutenean, bateratu taldeetan egindako lana.

Bereziki azpimarratu azken galdera (hots, gaur egun gertatzen den esaera zaharrek diotena); horrela, hurrengo faserako bideratuta geratuko da jarduera.

Abestiak talde txikitan azertu

Lehenengo taldeekin jarraituz, eman talde bakoitzari abestien orriaren fotokopia bat, edo eskatu eduki matxista duten edo emakumea mespretxatzen duten abesti batzuetan pentsatzeko.

Denbora pixka bat eman galderei erantzuteko, eta gero talde guztien erantzunak bateratu, honelako galderak eginez:

- Testuen edukian ba al da deigarria iruditu zaizuen ezer?
- Harrigarria iruditzen al zaizue abestien letrek izatea? Zergatik?
- Zuek ekarritako abestien letren antzik ba al dute?
- Oso ezberdinak iruditzen al zaizkizue abesti hauen mezua eta esaera zaharretakoa? Zergatik? Zer esaten digute?
- Ezagutzen al duzue alderantzizko mezua duen abestirik? Hau da, berdintasunari buruz hitz egiten duena eta emakumeek pairatzen duten injustizia salatzen duena? Pentsa dezatela pixka bat eta bota dezatela abestiren bat.

Adibide batzuk:

Ella. Interpreteta: Bebe.

Malo. Interpreteta: Bebe.

Se acabaron las lágrimas. Interpreteta: Huecco.

Que nadie. Interpreteta: Manuel Carrasco.

Salir corriendo. Interpreteta: Amaral.

Y en tu ventana. Interpretetarako: Andy eta Lucas.

Jarduera honetan landutakoarekin, hausnarketa, ondorio edo ideia batzuk atera ditzakezue, eta horietan oinarrituz klipmetraje baten gidoia presta dezakezue.

Eranskina

ESAERA ZAHARRAK

- Mandoa eta andrea kolpeka zuzendu behar.
- Gizon jakintsuena ere hondatzen du emakumeak.
- Emazte prestua geldi dadila etxean.
- Ezkontzea zer da, amatxo? Irutea, erditzea eta negar egitea, alabatxo.
- Emakumeak badaki, inork irakatsi gabe, negar egiten, gezurrak esaten eta dantza egiten.

Zer erakusten dute esaera zahar horiek? Zer islatzen dute?

Nolakoak dira emakumeak esaera zahar horien arabera? Gure gizartean horrelakoak al dira emakumeak?

Esaera zahar horietan nolako harremana dago gizonen eta emakumeen artean?

Esaera zahar horiek diotena gertatzen al da gaur egun? Nola?



Eranskina

ABESTIAK

*... Yo hubiera muerto por su risa.
Hubiera sido su feliz esclavo.
Qué dolor sucio y traidor
me envenena el corazón.
Sé que ella nunca enloqueció.
Jamás perdió el control.*

*Quiero verla bailar entre los
muertos,
la cintura morena que me volvió
loco,
llevo un velo de sangre en la
mirada,
y un deseo en el alma,
que jamás la encuentre.
Sólo quiero que una vez
algo la haga conmovér.
Que no la encuentre jamás
o sé que la mataré.*

*Por favor sólo quiero matarla.
A punta de navaja,
besándola una vez más...*

*...Aquí me ves
aunque liberada soy tu rehén
seduces ... encantas
qué puedo hacer
de la encrucijada que tienes montada no
escaparé.*

*Te abriré las puertas del alma de par en par
dispuesta a hacer todo a tu voluntad
dispuesta a hacer todo lo que te dé la gana.
Qué me importa !!!...*

*...Esta es la historia de un sábado
de no importa que mes
Y de un hombre sentado al piano
de no importa que viejo café.*

*Toca otra vez viejo perdedor
haces que me sienta bien
es tan triste la noche que tu canción
sabe a derrota y a miel*

*Cada vez que el espejo de la pared
le devuelve más joven la piel
se le encienden los ojos y su niñez
viene a tocar junto a él
Pero siempre hay borrachos con
babas
que le recuerdan quién fue
el más joven maestro al piano
vencido por una mujer...*

*... Cada espacio tiene su lugar
cada beso unos labios que dar
y los tuyos que mienten por nada me llenan de
soledad...*

*A pesar de no quererme
a pesar de serme infiel
te debo perdonar por una sola razón...*

*Cada día me siento más y más enamorada, amor
y quisiera contar con todo el mal que no me hiciste...
pero sé que es muy tarde y que no habrá segundas
partes
que aquí no caben dos sin tres he de olvidarte
y cada día me cuesta más....*